

UDALMAP BISOREA: EUSKAL UDALERRIENTZAKO LURRALDE-ADIMENA

Posted on 03/09/2026 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Datu Irekiak](#), [Lurralde Adimena](#), [Udalmap Bisorea](#)

Jada eskuragarri dago gure webgunean [Udalmap Bisorea](#), NAIDERek garatutako panel interaktiboa, [Eusko Jaurlaritzaren Udal Informazio Sistematik](#) jasotako datuei esker euskal udalerrien lehiakortasuna eta jasangarritasuna aztertzeke aukera ematen duena.

Panelak adierazle sorta zabala antolatzen du (demografia, mugikortasuna, ekonomia, besteak beste) udalerri bakoitzeko, eskualdeka iragazteko, batez besteko autonomikoarekin alderatzeko eta bilakaera tenporala jarraitzeko aukerarekin, testuinguru aktiboaren sistemari esker. Diagnostiko eta txosten estrategiko integratuak ere eskaintzen ditu, baita emaitzak txosten pertsonalizatu gisa esportatzeko aukera ere.

Sektore publikoan, garapen lokalean edo aholkularitza estrategikoan lan egiten duten profesionalei zuzenduta dago, datu irekiak erabakiak hartzeko baliagarri den ezagutza bihurtu nahi dutenei.

Ezagutu [Udalmap Bisorea](#) eta aztertu zure ingurunea:

